



CONSONNI RADIO AZrekin DEIALDIAREN OINARRIAK KOLEKTIBO EGOILIARRA

1. AURKEZPENA

Azkuna Zentroa Centro Azkuna de Ocio y Cultura, S.A. enpresak (hemendik aurrera, Azkuna Zentroa edo Az) bere proiektu artistikoa berrindartuko du, sorkuntza garaikidea, artea eta jakintza elkartzeko lokailua izan dadin, eta, orobat, bokazio kulturala sendotzeko, zentroaren identitatearen ikurra baita hori, gure herrialdearen mapa kulturalerako erreferente aktibo gisa betetzen duen zeregina indartzeko, eta komunitate artistikoaren, agente kulturalen eta herritarren arteko trukeari bide emateko.

2018. eta 2019. urteen artean, consonni da Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra, Bilboko San Frantzisko auzoan espazio kultural independentea duen argitaletxea; eta kultura-eduki hausnartzaileak duen indarra eta zabalkunderako izan ditzakeen aukerak ikertzea proposatzen du.

consonniren proiektuak irratia hartzen du ardatz, formula kritiko gisa, kultura-edukia taldeka sortzeko eta amplifikatzeko.

consonni radio Az-rekin programaren esparruan, dokumentu honetan, deialdi publikoa aurkezten dugu, Azkuna Zentroaren irratia-estudioan podcast-en programa bat egiteko.

2. XEDEA

Dokumentu honetan, **consonni radio Az**-rekin 2019 programa arautzen duten oinarriak bildu nahi ditugu.

consonni argitaletxea bi urteko egonaldia egiten ari da kolektibo egoiliar modura Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. 2018an, zenbait podcast programatu ditu, eta bide horretan jarraituko du 2019an ere. Begirada zabaldu nahi du, eta aukera eman nahi die beste ahots kritiko batzuei irratsaioa grabatzeko. Zuzenean grabatuko da saioa, consonni radio AZ-rekin programaren estudioan, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon. Lau ataleko programa bat, gutxienez 30 minutuko eta gehienez 60 minutuko iraupenekoa bakoitza.

Kultura kritikoari edo kritika kulturalari buruzkoa. Gai zabala da, eta gainera bide iradokitzaile desberdinetatik ekin ahal zaio.

3. BALDINTZAK

- Bilbokoak diren edo Bilbora joateko moduan diren eta adinez nagusiak diren pertsona fisikoei edo kolektiboei begira antolatutako deialdia da, aurrez aurre grabatuko baita saioa, consonni radio Az-rekin programaren estudioan, Azkuna Zentroan.



- Hizkuntzak: euskara edo/eta gaztelania.
- Formatu librea: irrati-magazina, soinu-saiakera, erreportajea, irrati-fikzioa, soinu-esperimentazioa, elkarrizketak ...
- Hautatutako lagunek 80 € gordin jasoko dituzte (atal bakoitzeko) parte hartzeagatik. Kopuru hori kobratu ahal izateko, faktura jaulki beharko da, dagozkion zergak sartuta (BEZa eta PFEZ)."
- consonni radio Az-rekin programak bere gain hartuko ditu zabalkundeko eta grabazioko gastu teknikoak.

4. EPEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a) Proiektuaren aurkezpena

Inskripzioa egiteko epea deialdi hau argitaratzen den egunetik, hau da, [2019ko urtarrilaren 28tik 2019ko martxoaren 1era arte egongo da zabalik, azken egun hau barnean hartuta](#). Deialdiari buruzko erabakia 2019ko martxoaren 15etik aurrera jakinaraziko zaio adjudikaziodunari.

Izena emateko formularioa consonniren web orrian bete behar da: www.consonni.org

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.

b) Proiektuaren hautapena

Balorazio Batzordeak proiektua hautatu ondoren, adjudikazioaren berri emango zaio hautatutako pertsonari, eta, orduetik aurrera, aste beteko epea izango du onartzen duela berresteko.

5. BATZORDEA ETA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Balorazio Batzordea arduratuko da aurkeztutako proiektuak balioesteaz. Az-ko taldeko lagunek, consonni-koek eta irrati- eta soinu-arloan ondo ezagututako lan-ibilbidea duten kanpoko pertsonak eratuko dute Balorazio Batzordea.

Adjudikazioa jasotzen duen proiektuari buruzko erabakia Balorazio Batzordearen eskumen eskusiboa da, eta ezin zaio errekurtsorik aurkeztu. Adjudikaziodunak uko eginez gero, Batzordeak eskumena izango du egonaldia bigarren hautagaiari esleitzeko edo deialdia jabegabe uzteko.



Era berean, aurkeztutako proiektu guztietatik batek ere egonaldiaren onura jasotzeko behar diren ezaugarriak ez dituela jotzen badu, Balorazio Batzordeak jabegabe utzi ahal izango du deialdia.

Erabakia 2019ko martxoaren 15etik aurrera jakinaraziko da. Emaizta web orri honetan argitaratuko da: www.azkunazentroa.eus, www.consonni.org. Horrez gain, onuradunari zuzenean jakinaraziko zaio, emandako helbidean.

Baloratzeko irizpideei dagokienez, oso kontuan hartuko dira kultura-eduki kritikoa zabaltzeko eta igortzeko trebetasuna eta podcasting-aren mugak gainditzeko asmoa. Kalitatezko edukiak eta formatuan eta edukian esperientzia egitea balioetsiko da. Horrez gain, aintzat hartuko da proposatutako ideiak gauzatea bideragarria den. Bestetik, ez da ezinbestekoa irratian esperientzia izatea.

6. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, konpromiso hauek hartu beharko dira:

- Podcast-en programa bat grabatzea zuzenean, hileko astearte batean, apirilatik ekainera arte, 18:00etan, consonni radio Az-rekin programak Azkuna Zentroan duen estudioan.
- Lau atal egitea, gutxienez 30 minutuko eta gehienez 60 minutuko iraupenekoak.
- Adjudikazioduna adostutako egunetan lan-espazioan azaltzen ez bada justifikaziorik eman gabe, horren ondorioz podcast programak igortzeko konpromisoa ezabatu ahal izango da.
- Hautatuak consonni radio Az-rekin podcasten programaren inguruan Az-k garatzen dituen jardueretan parte hartu beharko du.

7. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak aurkeztutako proiektuaren originaltasunaren eta egiletzaren erantzule izango dira, eta proiektu horien gaineko legezko jabetza intelektualaren eskubideak dituztela bermatuko dute. Ildo horretan, Az-ren eta consonniren erabilera baketsua bermatuko dute, eta berariaz salbuetsiko dituzte Az eta consonni, berme hori ez betetzeak zuzenean edo zeharka eragin litzakeen kalte-ordainen erantzukizun guztietatik. Merkataritzako jarduerak egiteko erabilera berariaz bazter utzirik, Az-k eta consonnik hautatutako proiektuei lotutako informazioa (testuala, ikus-entzunezkoa eta grafikoa) erabili ahal izango dute beren jardueren berri emateko. Osorik edo partzialki eta bakarrik edo bestelako edukiarekin batera erabili ahal izango dute.

Hortaz, hautatutako pertsonak Az-ri eta consonniri lagako dizkie eskubide horiek, legeak baimendutako gehienezko denboraz, mundu osoko esparru geografikoan, Az-ko jardueren bilduma-argitalpenak, liburuxkak edo katalogoak paperean eta euskarri digitalean argitaratzeko (web orria eta Az-k kudeatutako sare sozialetako profilak barnean hartuta).

Hautatutako pertsonak berariazko baimena emango dio Az-ri bere izena erabil dezan egoki iruditzen zaion eran eta deialdi honen helburuen barruan.



8. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek baimena emango diete Az-ri eta consonniri beren izena, kargua, irudia eta, noiz edo noiz, ahotsa -Az-ko espazioetan egiten diren argazki edo bideoetan jasotakoak- erabiltzeko, geroko informazio-zabalkunderako edo sustapenerako. Hori guztia, beren ohorerako eskubidearen aurka egon daitezkeen erabilerak eta aplikazioak kenduta, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak ezarritako moduan. Aurreko eremutik kanpoko bestelako erabilerak berariaz utziko dira baimen honetatik kanpo.

9. DATUEN BABESA

Parte-hartzaileek onartuko dute deialdi honetan emandako datu pertsonalak Azkuna Zentroaren titulartasuneko fitxategian sar daitezen -ondorio horretarako, Arriquirar plaza 4, 48010, Bilbo helbidean egoitza izanda-, deialdi hau, eta bere administrazioa, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko. Parte-hartzaileak bere lankideen datu pertsonalak ematen baditu, haien baimena jaso beharko du datu horiek Azkuna Zentroari jakinarazteko, helburu berberarekin.

Datu horietara sartzeko eta aztertzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideez baliatu ahal izateko, e-postako mezua bidali beharko da Info@azkunazentroa.com helbidera, mezua gaian sarbide-eskubideak jarrita, eta, eranskin gisa, eskutitz bat -datuen titularrak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea adierazita-, eta NANaren edo antzeko egiaztagiriri baten kopia bat gehituta.

10. JURISDIKZIOA

Sor litezkeen gatazkak konpontzeko bi alderdien artean adiskidantzazko ebazpenik lortzen ez bada, Bilboko epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira, beren eskumenari berariaz uko eginda.

11. OINARRIEN ONARPENA

Deialdira aurkezte hutsagatik, parte-hartzaileek onetsi egingo dituzte oinarri hauek.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 28an.